

LANBIDE-GARAPENEN OHIKO DEIALDIA

B1 LANBIDE-TALDERAKO JARRAIBIDEEN ESKULIBURUA
AUTOEBALUAZIO-FASEA

Osakidetza

1. BERTSIOA

EDUKIA

OSAKIDETZAKO LANBIDE-GARAPENENKO OHIKO DEIALDIA (2081/2025 EBAZPENA) . 2	
1. EBALUAZIO-PROZEDURA..... 3	3
2. <i>CURRICULUM VITAE</i> APLIKAZIOKO CURRICULUM- MEREZIMENDUAK..... 4	4
3. NOLA EGIN AUTOEBALUAZIOA 6	6
JARDUERA ASISTENTZIALA FAKTOREARI egindako ekarpenak..... 8	8
LANBIDE-JAKINTZA FAKTOREARI egindako ekarpenak 10	10
ERAKUNDEAREKIKO INPLIKAZIOA ETA KONPROMISOA FAKTOREARI egindako ekarpenak..... 14	14

OSAKIDETZAKO LANBIDE- GARAPENEN OHIKO DEIALDIA (2081/2025 EBAZPENA)

AUTOEBALUAZIO-FASERAKO JARRAIBIDEAK

Onartutako pertsonak **Autoebaluazio Fasean** sartzen dira, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren 6. artikuluan jasotzen den bezala. Autoebaluazioa, alde batetik, faktoreak ebaluatzeko informazio garrantzitsua ematean datza, **Autoebaluazio Fitxaren** bidez, eta, bestetik, autoebaluazioan zehar, curriculum-merezimenduak alegatzean.

Autoebaluazio-fasea borondatezkoa da, ez derrigorrezkoa. Onartutako pertsonak informazioa ematen dute, eta beren lanbide-taldearen arabera aplikatu behar zaizkien faktore ebaluagarrien autoebaluazioa egiten da. Gainera, fase horretan, onartutako pertsonak beren curriculum-merezimenduen egoera zein den egiazta dezakete, eta oraindik Osakidetzako Curriculum Vitae sartzu gabe daudenak erregistratu ahal izango dituzte, baliozkotzeko dokumentazio egokia aurkeztuta. Informazio hori guztia kontuan hartuko da Ebaluazio Prozedurarako, zeina deialdiaren hurrengo fasea izango baita.

1. EBALUAZIO-PROZEDURA

Ohiko deialdian ebalua daitezkeen faktoreak abenduaren 19ko **2081/2025 Ebazpenaren eranskinetan** zehazten dira. Irailaren 22ko 395/2005 Dekretuak, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuak eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuak ezarritako esparruaren arabera, kasu bakoitzean aplika daitezkeen faktore ebaluagarriak Osakidetzan garapen-maila aitortzeko eskatzen den lanbide-taldearen arabekoak dira.

Honako hauek dira ebaluatu daitezkeen faktoreak:

- **jarduera asistentziala** (A1 eta B1 lanbide-taldeetan), **jarduera eta lanean aritzea** (A2, B2, C eta D lanbide-taldeetan) edo **jarduera, gaitasuna eta betetze profesionala** (E lanbide-taldean);
- **lanbide-jakintza** (A1, A2, B1 eta B2 lanbide-taldeetarako) edo **gaitasuna eta lanbide-jakintza** (C eta D lanbide-taldeetarako);
- prestakuntza (lanbide-talde guztientzat);
- irakaskuntza eta jakintzaren hedapena (talde guztietarako, eta C, D eta E taldeen kasuan, berrikuntza ere sartzen da);
- kerkuntza, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk (A1, A2, B1 eta B2 lanbide-taldeetarako soilik), eta
- erakundearekiko **inplikazioa eta konpromisoa** (lanbide-talde guztientzat).

Faktore ebaluagarri horiek hainbat azpifaktoretan artikulatzen dira, eta azpifaktore horiek, aldi berean, hainbat itemetan. Bestalde, faktoreak hiru bloke handitan biltzen dira.

A blokeak faktore hauek biltzen ditu:

- jarduera asistentziala (A1 eta B1), jarduera eta lanean aritzea (A2, B2, C eta D) edo jarduera, gaitasuna eta betetze profesionala (E lanbide-taldean); eta
- lanbide-jakintza (A1, A2, B1 eta B2) edo gaitasuna eta lanbide-jakintza (C eta D).

B blokeak faktore hauek biltzen ditu:

- prestakuntza;
- irakaskuntza eta jakintzaren hedapena (eta C, D eta E taldeetarako berrikuntza), eta
- ikerkuntza, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk (A1, A2, B1, B2).

Azkenik, **C blokea** faktore hau da:

- erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa.

2. CURRICULUM VITAE APLIKAZIOKO CURRICULUM- MEREZIMENDUAK

Honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten curriculum-merezimenduak hartzen dira kontuan:

- (1) aplikazioan "**Baliozkotuta**" egoeran dauden merezimenduak dira;
- (2) aplikatu beharreko denbora-tartean sortu diren merezimenduak dira, hau da, aurreko sei edo zazpi urteetan (lanbide-garapeneko I. maila lortu nahi dutenentzat izan ezik; pertsona horientzat denbora osoa hartzen da), eta 2025eko abenduaren 31ra artekoak, 2025eko deialdian onartu izan direnentzat; eta 2022ko abenduaren 31ra artekoak, 2022ko deialdian onartu izan direnentzat; eta 2023ko abenduaren 31ra artekoak, 2023ko deialdian onartu izan direnentzat, eta 2024ko abenduaren 31ra artekoak, 2024ko deialdian onartu izan direnentzat.
- (3) merezimendu horiek berariaz identifikatuta daude 2081/2025 Ebazpenaren eranskinetan, zehazki, B blokean ebaluagarritzat jotakoak, eta, Erakundearekiko lankidetzaz azpifaktoreari dagokionez, C blokean ebaluagarritzat jotakoak.

B blokeko **Prestakuntza** faktorearen ebaluazioan sartzen diren curriculum-merezimenduak honako hauek dira:

- Titulu akademikoa.
- Graduondoko titulazioa.
- Etengabeko prestakuntzako jardueretara joatea.
- Ezagutza zabaltzeko jardueretan parte hartzea.
- IT Txartelak.

B blokeari dagozkion **irakaskuntza eta jakintzaren hedapena** faktorearen ebaluazioan sartzen diren curriculum-merezimenduak honako hauek dira:

- Maila akademikoetan emandako irakaskuntza.
- Irakaskuntza Osasun Zientzien espezialitateetan.
- Graduondoko prestakuntzan emandako irakaskuntza
- Irakaskuntza etengabeko prestakuntzan.
- Bilera zientifikoetan eta dibulgazio-bileretan parte hartzea eta haiek antolatzea.
- Artikuluak, liburuak, liburu-kapituluak, aldizkariak eta liburuak argitaratzea.

B blokeko **Ikerkuntza, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk** faktorearen ebaluazioan lekua duten curriculum-merezimenduak *Curriculum Vitae* aplikazioko Ikerkuntza/Berrikuntza, *Taldeetan parte hartzea* eta *Beste merezimendu batzuk* ataletan daude kokatuta. Hona hemen curriculumeko merezimendu horiek:

- Ikerkuntzako eta berrikuntzako proiektuak.
- Saiakuntza klinikoak eta frogantzako saiakuntzak.

- Doktore-tesien zuzendaritza eta ebaluazioa.
- Ikerkuntzako proiektuen ebaluazioa.
- Sariak eta goraipamenak ikerkuntzari.
- Jabetza industriala eta intelektuala.
- Ikerkuntzako egonaldiak.
- Ikerkuntzako plataformak eta sareak.
- Lizentziako tesina.
- Batzorde, epaimahai eta Osakidetzatik kanpoko beste organo batzuetan parte hartzea.
- Bestelako jarduera/esku-hartze profesionalak.

C blokeari dagokion **Erakundearekiko lankidetz**a faktorearen ebaluazioan sartzen diren curriculum-merezimendu guztiak *Curriculum Vitae* aplikazioko Taldeetan parte-hartzea atalean daude. Hona hemen curriculumeko merezimendu horiek:

- Osakidetzako batzorde, epaimahai eta bestelako organo korporatiboak.
- Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako batzorde, epaimahai eta bestelako organo batzuk.
- Osakidetzako lan-taldeak.

3. NOLA EGIN AUTOEBALUAZIOA

Hurrengo irudian, B1–Diplomadun sanitarioak lanbide-talderako ebaluazio-eredua erakusten da.

LANBIDE GARAPENeko EREDUA B1 Taldea					
BLOKE	FAKTORE	AZPIFAKTORE	ITEM	Ebaluazioa	
A BLOKE	JARDUERA ASISTENTZIALA FAKTORE	Taldearen helburuak lortzea eta horiek lortzeko ekarpen indibidualaren maila	Taldeko/Unitateko emaitza eta helburuen eboluzioa	Langilearen ekarpen-fitxak	
			Taldeko/Unitateko emaitzak eta helburuak kanpoko erreferentzia batekin alderatzea		
			Taldeko/Unitateko emaitzak eta helburuak lortzeko ekarpen indibidualaren maila		
		Baliabideak planifikatu, antolatu eta erabiltzea	Antolakuntza, plangintza eta arazoak konpontzea		
	LANBIDE-JAKINTZA FAKTORE	Jakintza teknikoa	Jarduera hartu, baloratu eta planifikatzea		Erabiltzailea erregistratu, jarraitu, ebaluatu eta prestatzea
			Zainketak, teknikak, probak eta tratamenduak burutzea		Araua eta gidalerroak betetzea
		Zorroztasun profesionala	Lanbidean eguneratu eta hobetzea		Komunikazioa, hurbilerraztasuna eta enpatia
		Erabiltzaile/Paziente/Senideekiko harremana	Erabiltzaileen/senideen gogobetetzea		
B BLOKE	PRESTAKUNTZA FAKTORE			Curriculum-merezimenduak	
	IRAKASKUNTZA ETA EZAGUTZAREN ZABALKUNDEAREN FAKTORE				
	IKERKUNTZA ETA BERRIKUNTZA FAKTOREA ETA BESTE MEREZIMENDUAK				
C BLOKE	LANBIDE-JAKINTZA FAKTORE	Talde lana	Talde lana	Langilearen ekarpen-fitxak	
		Erakundearekiko lankidetzeta	Antolakuntzan parte hartzea		
			Hobetzeko jarrera eta aldaketetara egokitzea	Prestakuntzan eta trebakuntzan parte hartzea	Curriculum-merezimenduak
		Organo, batzorde eta taldeetan parte hartzea		Hobetzeko jarrera eta Aldaketara egokitzea	Langilearen ekarpen-fitxak

Aplikazio informatikoaren *Ebaluazioa* erlaitzean eta ereduaren arabera, faktoreak, azpifaktoreak eta adierazleak A eta C blokeetan banakutzen dira; B eta C blokeetako curriculum-merezimenduen kasuan, Curriculum Vitae aplikazio informatikoan egin behar dela adierazten da.

A blokea, ebaluazio-faktoreekin eta -azpifaktoreekin.

The screenshot shows the 'Osakidetza' website interface. At the top, there is a navigation bar with the logo and 'Lanbide-garapena'. The user is identified as 'Masorati Wahnwitz, Johnny' with the ID '16274230M'. The page title is 'Lanbide-garapenaren deialdiaren xehetasunak'. The main content area is titled 'Deialdia: 1184/2023 - LANBIDE GARAPENEO DEIALDI ARRUNTA'. Below this, there are tabs for 'Egoerari buruzko datuak', 'Emandako zerbitzuak', 'Eskaerak', 'Izena ematea', and 'Ebaluazioa'. The 'Ebaluazioa' tab is active, showing a form with fields for 'Profesionala', 'Deialdia', 'Lor Dattekeen LG Maila', 'Lanbide Taldea', and 'Especialitatea'. The 'Autoebaluazioa' section is visible, with 'A Blokea' selected. Below this, there are two expandable sections: 'Jarduera Asistentzila' and 'Lanbide Jakintza'.

B blokea, curriculum-merezimenduak Curriculum vitae aplikazio informatikoan egin behar direla adierazita.

The screenshot shows the 'Osakidetza' website interface. The 'Autoebaluazioa' section is active, with 'B Blokea' selected. The text below the tabs reads: 'Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduak eta autoebaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.' Below this, there is a blue button labeled 'B blokeko curriculumaren merezimenduak (Prestakuntza, Irakaskuntza eta ezaquitzaren zabalkunde eta lerkuntza eta berrikuntza) Curriculum Vitae aplikazio informatikoan ailegatu behar dira.' There are also two buttons: 'GORDE ZIRIBORRIA' and 'BIDALI AUTOEBALUAZIOA'.

Eta C blokea, ebaluazio-faktoreekin eta -azpifaktoreekin, eta, kasuan kasu, batzorde, epaimahai eta lantaldeetan parte hartzearekin lotutako faktoreekin, curriculum vitaera igorrita.

The screenshot shows the 'Osakidetza' website interface. The 'Autoebaluazioa' section is active, with 'C Blokea' selected. The text below the tabs reads: 'Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduak eta autoebaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.' Below this, there is a blue button labeled 'Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa'. There are three expandable sections: 'Talde-lana', 'Erakundearekiko lankidetzeta', and 'Hobetzeko jarrera eta Aldaketetara egokitzea'.

JARDUERA ASISTENTZIALA FAKTOREARI EGINDAKO EKARPENAK

Jarduera asistentziala faktorea baloratzeko, kontuan hartzen dira profesionalaren **unitate edo zerbitzuaren emaitzak eta helburuak**, eta **zer ekarpen egiten duen emaitza horiek lortzeko**; azken finean, zer ekarpen egiten duen zerbitzuak ematen dituen erakundearen helburuak lortzeko. Era berean, jardueraren **plangintzari eta antolaketari** buruzko **gaitasuna eta emaitzak** jasotzen ditu, bai eta haren **eraginkortasuna** ere, dituen **baliabideak erabiltzeari** dagokionez.

Faktore hori bi azpifaktoretan banatzen da:

- ❖ TALDEAREN HELBURUAK LORTZEA ETA HORIEK LORTZEKO EKARPEN INDIBIDUALAREN MAILA
- ❖ BALIABIDEAK PLANIFIKATU, ANTOLATU ETA ERABILTZEA

Autoebaluazioa

Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduak eta autoebaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea B Blokea C Blokea

Jarduera Asistentziala

- Taldearen Helburuak Lortzea Eta Horiek Lortzeko Ekarpen Indibidualaren Maila
- Baliabideak Planifikatu, Antolatu Eta Erabiltzea

TALDEAREN HELBURUAK LORTZEA ETA HORIEK LORTZEKO EKARPEN INDIBIDUALAREN MAILA

Autoebaluazioa

Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduak eta autoebaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea B Blokea C Blokea

Jarduera Asistentziala

Taldearen Helburuak Lortzea Eta Horiek Lortzeko Ekarpen Indibidualaren Maila

Baloratu zenbateraino lagundu diezun zure zerbitzuak/unitateak lortutako emaitzei

Itema Besteak

Ekarpen-maila Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi Izena Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

Azpifaktore honek profesionala dagoen **unitate edo zerbitzuaren emaitzak eta helburuak** baloratzen ditu, eta, bereziki, profesionalak emaitza horiek **lortzeko egiten duen ekarpena**.

Azpifaktore hau ebaluatzeko, honako hauek hartu dira kontuan: lanbideak, **unitate/zerbitzu** motak; erizaintza obstetrikoginekologikoa (emagina), osasun mentaleko erizaintza, laneko erizaintza, familia- eta komunitate-erizaintza, zainketa mediko-kirurgikoetako erizaintza, erizaintza geriatrikoa, erizaintza pediatrikoa, fisioterapeuta eta beste osasun-diplomadun batzuk, terapeuta okupazionala, eta abar.

Profesionalak bere jardueraren autoebaluazioan egokien jotzen dituen adierazleak aukeratuko ditu. Horretarako, Item eremuan klik eginez, adierazle bat hautatuko duzu lerro bakoitzean, ekarpen-maila aukeratuz. Profesionalak egokitzat jotzen dituen informazioa/datuak/argudioak eman ahal izango ditu. Pertsonak **ekarpen-maila** "handia" hautatzen badu, ebidentziak eransteko eskatuko dio aplikazioak.

BALIABIDEAK PLANIFIKATU, ANTOLATU ETA ERABILTZEA

Azpifaktore honek kontuan hartzen du profesionalak jarduerak planifikatzeko, baliabideak behar bezala antolatzeko eta erabiltzeko eta jardueran gertatzen diren gorabeherak kudeatzeko duen gaitasuna, jardueran eta aprobetxamenduan ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko.

Azpifaktore honek bi item baloratzen ditu:

1. ITEMA. ANTOLAKUNTZA, PLANGINTZA ETA ARAZOAK KONPONTZEA
2. ITEMA. BALIABIDEAK ERABILTZEA

1. ITEMA. ANTOLAKETA, PLANGINTZA ETA ARAZOAK KONPONTZEA

Profesionalak lan-planak betetzeko eta bere edo taldeko beste profesional batzuen jarduerak **programatzeko eta ordenatzeko** duen gaitasuna baloratzea, bai eta jardueran gertatzen diren gorabeherak eta **ezustekoak konpontzeko autonomia**- eta eraginkortasun-maila ere.

Honako hauei buruzko jokabideak jasotzen ditu:

- Jardueraren **autoantolaketa**, eta lan-planak eta lanaldiak betetzea.
- Beste profesional batzuen **orientazio**- eta **antolaketa-jarduerak** garatzea.
- Jardueraren **gorabeherak** konpontzea.
- Ezustekoen aurrean erreakzionatzeko eta **arazoak konpontzeko gaitasuna**.

2. ITEMA. BALIABIDEAK ERABILTZEA

Profesionalak bere jarduerarako beharrezkoak diren materialak eta baliabideak antolatu, erabili eta **material horien erabilera egokia** mantentzeko duen gaitasuna baloratzea, baita material eta baliabide horiek modu eraginkorragoan aprobetxatzeko duen gaitasuna ere.

Honako hauei buruzko jokabideak jasotzen ditu:

- Materialak, baliabideak, tresnak eta ekipoa **zuzen eta eraginkortasunez** erabiltzea.
- Elementu horiek guztiak ahalik eta ondoen aprobetxatzeko eta optimizatzeko interesa eta orientazioa izatea.
- Unitateko materialak, ekipoa eta instalazioak ordenatzeko eta kontserbatzeko jardueretan laguntzea.

LANBIDE-JAKINTZA FAKTOREARI EGINDAKO EKARPENAK

Lanbide Jakintza

- + Jakintza Teknikoa
- + Erabiltzaile/Paziente/Senideekiko Harremana
- + Zorroztasun Profesionala

Lanbide-jakintza baloratzeko –profesionalak bere jarduera asistentzialerako erabiltzen dituen ezagutza, gaitasun eta jarreraren multzo gisa ulertuta–, honako alderdi hauek ebaluatzen dira: jakintza teknikoa (lanbidearen berezko ezagutzak etengabe eguneratzeari dagokionez); erabiltzaile, paziente zein senideekiko harremanaren kalitatea (tratuan, emandako informazioan eta eskaerei erantzuteko jarreraren adierazten da), eta doitasun profesionala (diziplinaren edo jardueraren berezko jarraibideak betetzei dagokionez).

Faktore hau hiru azpifaktoretan banatzen da:

- ❖ JAKINTZA TEKNIKOA
- ❖ ERABILTZAILE/ PAZIENTE/ SENIDEEKIKO HARREMANA
- ❖ ZORROZTASUN PROFESIONALA

JAKINTZA TEKNIKOA

Lanbide Jakintza

Jakintza Teknikoa

Hautatu zuk egindako 3 jarduerak, konplexutasun handienekotzat jotzen dituzun horiek, erabilitako tekniketari, tratatutako pazientearen tipologian eta abarretan oinarrituta, eta identifikatu horietako bakoitzerako zer konplexutasun-alderdi dituen, zer autonomia- edo ardura-mailarekin egiten den eta zer ehunekotan egiten den.

Jarduerak	% dedikazioa	Autonomia/erantzukizun maila	Konplexutasun-alderdiak
<input type="text"/>	<input type="text" value="0"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text" value="0"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text" value="0"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Jakintza da profesionalak bere diziplina-eremuko berezko prozesuak eta teknikak menderatzea, autonomiari, kalitateari, efizientziari, trebetasunari eta prozesu eta teknika horiek garatzeko trebetasunari dagokienez.

Azpifaktore hau baloratzeko, lanbide-kualifikazioari buruzko alderdi hauek hartzen dira kontuan:

- Profesionalak gauzatzen dituen prozedura, teknika, zainketa eta abarren konplexutasun-maila, dela konplexutasun teknikoagatik, dela aplikatzen zaizkien paziente zein erabiltzaileen tipologiagatik.
- Zer autonomia-mailarekin gauzatzen duen.
- Erakundeari eman dion espezializazio- eta/edo balio-aniztasun-maila.
- Diziplinako prozedurak eta prozesuak hobetu eta garatzeko jardueretan ekarpenak egitea, eta diziplinako beste profesional batzuentzat erreferentzialak izatea.

Azpifaktore honi dagokionez, agintariak profesionala ebaluatuko du hiru item hauei dagokienez:

1. ITEMA. JARDUERA HARTU, BALORATU ETA PLANIFIKATZEA.
2. ITEMA. ZAINKETAK, TEKNIKAK, PROBAK ETA TRATAMENDUAK BURUTZEA
3. ITEMA. ERABILTZAILEA ERREGISTRATU, JARRAITU, EBALUATU ETA PRESTATZEA

Hona hemen item bakoitzaren definizioak:

1. ITEMA: JARDUERA HARTU, BALORATU ETA PLANIFIKATZEA

Honen barruan sartzen dira paziente, erabiltzaile zein senideei harrera egiteko jarduerak, jarraitu beharreko prozesua baloratzeko eta/edo zehazteko beharrezkoak diren datuak edo informazioak biltzea, eta jarduerarako beharrezkoak diren programazio- edo prestakuntza-jarduerak.

2. ITEMA: ZAINKETAK, TEKNIKAK, PROBAK ETA TRATAMENDUAK BURUTZEA

Diziplinaren edo lan-arloaren berezko teknikak, probak edo tratamenduak gauzatzeari buruzko balorazioa jasotzen du, konplexutasunaren, autonomiaren, trebetasunaren eta abarren arabera.

3. ITEMA: ERABILTZAILEA ERREGISTRATU, JARRAITU, EBALUATU ETA PRESTATZEA

Egindako esku-hartzeari eta lortutako emaitzen ebaluazioari buruzko informazioa erregistratzeko jarduerak barne hartzen ditu, baita zainketen jarraitutasunarekin eta osasun-arloko erabiltzaileei informazioa eta orientazioa ematearekin lotutako jarduerak ere.

ERABILTZAILE/ PAZIENTE/ SENIDEEKIKO HARREMANA

Pazienteekiko harremanaren kalitatea hartzen du kontuan, honako alderdi hauei dagokienez: pazienteekiko tratuan; erabiltzaile, paziente zein senideei informazioa emateko modua, eta haien eskaerei eta eskakizunei erantzuteko jarrera.

Erabiltzaile, paziente zein senideekin harreman zuzenik ez duten unitateetan, azpifaktore honen balorazioa "barne-erabiltzailearekin" lotuta aipatutako jarrera eta jokabideen arabera egingo da.

Erabiltzaile/Paziente/Senideekiko Harremana

Komunikazioa, hurbilerraztasuna eta enpatia

Hurrengo itemei dagokienez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifika itzazu zure merezimenduak eta ekarpenak:

Itema: Komunikazioa, irisgarritasuna eta enpatia

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi: Izena Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

Erabiltzaileen/senideen gogobetetzea

Hurrengo itemei dagokienez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifika itzazu zure merezimenduak eta ekarpenak:

Itema: Erabiltzaileen/familiaren gogobetetzea

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi: Izena Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

Azpifaktore honen balorazioa honako bi item hauen bidez egiten da:

1. ITEMA. KOMUNIKAZIOA, HURBILERRAZTASUNA ETA ENPATIA
2. ITEMA. ERABILTZAILEEN/SENIDEEN GOGOBEETETZEA

1. ITEMA. KOMUNIKAZIOA, HURBILERRAZTASUNA ETA ENPATIA

Profesionalak erabiltzaile, paziente zein senideekin duen harreman- eta komunikazio-gaitasuna baloratzen du, bai eta haien aurrean duten jarrera eta ematen dieten tratua eta erantzun mota ere.

Honako jokabide hauek jasotzen ditu:

- Erabiltzaile, paziente zein senideekiko tratua eta jarrera.
- Erabiltzaile, paziente zein senideei emandako informazioa. Informazioa erabiltzaileen ezaugarrietara egokitze gaitasuna. Erabiltzaile, paziente zein senideak entzuteko eta haien eskakizunak eta beharrak artatzeko gaitasuna.
- Komunikazioa egoera kritikoetan.

2. ITEMA. ERABILTZAILEEN/SENIDEEN GOGOBEETETZEA

Erabiltzaile, paziente zein senideak zenbateraino dauden gustura baloratzen du.


Itemak honelako jokabideak jasotzen ditu:

- Erabiltzaile, paziente zein senideen eskaerak eta eskakizunak ezagutzeko eta haiei erantzuteko interesa izatea.
- Erabiltzaile, paziente zein senideen gogobetetasuna-maila.
- Norberaren jokabidearen orientazioa, hauen arabera: erabiltzaile, paziente zein senideek esplizituki adierazitako gogobetetasuna, eta gogobetetzea ezagutzeko interes esplizitua.

ZORROZTASUN PROFESIONALA

Azpifaktore honek bi item ditu:

1. ITEMA. ARAUAK ETA GIDALERROAK BETETZEA
2. ITEMA. LANBIDEAN EGUNERATU ETA HOBETZEA



Zorroztasun Profesionala


- + Arauk/gidalerroak betetzea
- + Lanbidean eguneratu eta hobetzea

1. ITEMA. ARAUAK ETA GIDALERROAK BETETZEA

Diziplina profesionalari edo jarduera-arloari dagozkion arauak eta jarraibideak betetzen diren baloratzea, eta, bereziki, **konfidentzialtasunaren** esparruarekin lotutakoak.

Honelako jokabideak ditu:

- Diziplina profesionaleko edo erakundeak ezarritako arauak, jarraibideak eta prozedurak betetzea (erabiltzaileari informazioa ematea, konfidentzialtasuna, prebentzioa, kalitatea, antolamendua, etab.).
- Arauak eta prozedurak ezagutzea, kontuan hartzea eta betetzen laguntzea.
- Informazioaren diskrezionalitateari buruzko gogoeta egitea.



Zorroztasun Profesionala

Arauk/gidalerroak betetzea

Hurrengo itemei dagokionez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifika itzazu zure merezimenduak eta ekarpenak:

Itema: Arauk/jarraibideak betetzea

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi: Izena, Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

2. ITEMA. LANBIDEAN EGUNERATU ETA HOBETZEA

Profesionalaren ezagutzen eguneratze-maila baloratzea, bai eta lanbidearen esparruan egindako aurrerapenak eta garapenak ezagutzeko jakin-mina eta ahalegina ere.

Honelako jokabideak ditu:

- Diziplinari edo jarduera-eremuari buruzko informazioa bilatzea eta ezagutzak etengabe eguneratzea. Diziplinaren edo jarduera-arloaren eremuko berritasunen eta garapen berrien berri izateko interesa.
- Autoprestakuntzako eta prestakuntzako jarduerak egiteko jakin-mina. Hazteko edo lanbidegarapenerako aukerak dakartzaten jardueri ekiteko interesa izatea.

Zorroztasun Profesionala

+ Arauak/gidalerroak betetzea

- Lanbidean eguneratu eta hobetzea

Hurrengo iterei dagokionez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifika itzazu zure merezimenduak eta ekarpenak:

Itema: Eguneratze eta hobekuntza profesionala

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi: Izena, Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo [bilaketa](#)

ERAKUNDEAREKIKO INPLIKAZIOA ETA KONPROMISOA FAKTOREARI EGINDAKO EKARPENAK

Erakundearekiko inplikazioaren eta konpromisoaren balorazioa da profesionalak erakundearen helburu eta proiektuetan laguntzeko eta inplikatzeke duen prestasuna. Taldean lan egiteko gaitasuna, erakundearen proiektuetan lankidetzan aritzea eta hobetzeko eta aldaketara egokitzeko jarrera hartzen ditu kontuan.

Faktore hori bi azpifaktoretan banatzen da:

- ❖ TALDE-LANA
- ❖ ERAKUNDEAREKIKO LANKIDETZA
- ❖ HOBETZEKO JARRERA ETA ALDAKETETARA EGOKITZEAK

TALDE-LANA

Talde-lana balioesten du, hau da, Unitateko taldearekin eta Erakundeko edo kanpoko erakundeetako beste zerbitzu edo unitateetako taldeekin lankidetzan aritzeko eta koordinatzeko gaitasuna, haiekin elkarreragin eta harremanak izateko.

Honako jokabide hauek hartzen ditu barnean:

- Beste profesional batzuen/unitateen/zerbitzuen eskaerei eta eskaerei erantzutea.
- Gainerako lantaldeekin informazioa, komunikazioa eta lankidetzak trukitzea.
- Unitateko jardueretan inplikatzea eta laguntzea.
- Beste unitate edo erakunde batzuekiko komunikazioa eta lankidetzak.

- Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa

- Talde-lana

Hurrengo itemari dagokionez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifika itzazu zure merezimenduak eta ekarpenak, azpifaktore hauek kontuan izanik:

Itema: Talde-lana

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi: Izena, Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo [bilaketa](#)

ERAKUNDEAREKIKO LANKIDETZA

Azpifaktore hori Batzorde, Batzorde, Epaimahai, Lantalde eta abarretan parte hartzean egituratzen da, eta Curriculum Vitae aplikazioaren eta honako item hauen bidez egiaztatuko dira:

1. ITEMA. ANTOLAKUNTZAN PARTE HARTZEA
2. ITEMA. PRESTAKUNTZAN ETA TREBAKUNTZAN PARTE HARTZEA

Erakundearekiko lankidetzak

- Batzorde, epaimahai eta bestelako organo korporatiboak
- Zerbitzu-erakundeetako batzordeak, epaimahaiak eta bestelako organoak
- Osakidetzako lan-taldeak
- Antolakuntzan parte hartzea
- Prestakuntzan eta trebakuntzan parte hartzea

1. ITEMA. ANTOLAKUNTZAN PARTE HARTZEA

Item honen balorazioak honelako jokabideak jasotzen ditu:

- Erakundeak sustatutako helburuak, proiektuak eta jarduerak ezagutzea, horietan parte hartzea eta inplikatzeko.
- Batzordeetan, lantaldeetan eta abarretan parte hartzea, eta Batzordeen, Lantaldeen eta abarren zuzendaritza- eta/edo koordinazio-jardueretan izandako esperientziak.

Erakundearekiko lankidetzak

- Batzorde, epaimahai eta bestelako organo korporatiboak
- Zerbitzu-erakundeetako batzordeak, epaimahaiak eta bestelako organoak
- Osakidetzako lan-taldeak
- Antolakuntzan parte hartzea

Hurrengo itemari dagokionez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifika itzazu zure merezimenduak eta ekarpenak:

Itema	Erakundearen parte hartzea	Erantsi
Ekarpen-maila Aukeratu	Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea	Izena Tm Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

2. ITEMA. PRESTAKUNTZAN ETA TREBAKUNTZAN PARTE HARTZEA

Item honen balorazioak honelako jokabideak jasotzen ditu:

- Ikasleei, langile berriei eta/edo taldeko beste profesional batzuei harrera egiteko eta integratzeko jardueretan laguntzea.
- Ikasleen, langile berrien eta/edo taldeko beste profesional batzuen trebakuntza-, prestakuntza- eta tutoretza-jarduerak egitea

Erakundearekiko lankidetz

- + Batzorde, epaimahai eta bestelako organo korporatiboak
- + Zerbitzu-erakundeetako batzordeak, epaimahaiaik eta bestelako organoak
- + Osakidetzako lan-taldeak
- + Antolakuntzan parte hartzea
- Prestakuntzan eta trebakuntzan parte hartzea

Hurrengo itemari dagokionez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifika itzazu zure merezimenduak eta ekarpenak, azpifaktore hauek kontuan izanik:

Itema: Prestakuntzan eta trebakuntzan parte hartzea

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi: Izena Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

HOBETZEKO JARRERA ALDAKETETARA EGOKITZEA

Profesionalak lan egiteko metodoen eta moduen aldaketetara egokitzeke duen gaitasuna baloratzen da, baita antolaketa-beharren aurrean duen prestasuna ere.

Era berean, hobekuntzara bideratutako ekimen, programa eta jardueretan lankidetzeta eta parte-hartze aktiboa aintzat hartzen dira.

Item honen balorazioak honelako **jokabideak** jasotzen ditu:

- Lana egiteko metodo eta modu berrien aldaketetara eta asimilaziora egokitzea. Antolaketa-beharrek eragindako aldaketen aurrean prestasuna izatea.
- Hobetzeko arloak antzematea eta iradokizunak egitea, lana hobetzen duten aldaketak sartzea, eta hobetzeko jardueri eta proiektuei laguntzea.

Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa

- + Talde-lana
- + Erakundearekiko lankidetzeta
- Hobetzeko jarrera eta Aldaketetara egokitzea

Hurrengo itemari dagokionez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifika itzazu zure merezimenduak eta ekarpenak, azpifaktore hauek kontuan izanik:

Itema: Hobetzeko jarrera eta aldaketetara egokitzea

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi: Izena Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa